

15. ORDENANTZA

Ordenantza fiskala, etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituen

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honetako prezio publikoa.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Etxeko Laguntza Zerbitzuak honako laguntza hauek zuzenean ematea da zergaia:

a) Etxeko lanak:

Etxea garbitzea.

Erosketak egitea (eguneroko kontsumorako oinarrizko gaiak).

Otorduak prestatzea.

Arropa garbitu eta zaintzea.

b) Zainketa laguntza pertsonaleko lanak:

Ohetik jaikitzen eta gorputzeko garbiketa lanak egiten laguntzea.

Jantzeko edo arropak erantzeko laguntza.

Jatera emateko laguntza.

Etxeko eskailerak igo nahiz jaisten laguntzea, baita etxetik kanpoko irteera laburretan laguntzea ere.

Medikuak agindutako sendagaiak eman eta kontrolatzea.

3. artikulua. Zerbitzuko langileek egiten duten segimenduaz edo hezkuntza lanaz baizik baliatzen ez diren erabiltzaileek ez dute tasa hau ordaindu beharko, ez badira aurreko paragrafoan aipaturiko laguntzen hartzaile.

SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua. Subjektu pasiboak izanen dira 2. artikuluan azaldutako zerbitzuak eskatu eta erabiltzen dituzten pertsonak.

Prezio publikoen sorrarazpena

5. artikulua. Tasak hilabete natural osoak bukatutakoan sortuko dira, subjektu pasiboa zerbitzua erabiltzetik gelditzen ez den bitartean. Hasierako edo azkeneko aldiak ez badatoz hilabete naturalekin bat, egun naturalen arabera hainbanaketa eginen da.

TARIFAK

6. artikulua. Udalaren organo eskudunak prezio publikoak urtero onetsiko ditu, ordenantza honen eranskinean ageri den baremoa oinarritzat harturik.

KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua. Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaile berariazkozkat hartuko dira pertsona edo/eta familiak, ohiko jarduerak ezin egin dituztenak, edo kideren batzuek egoera familiar gatazkatsuak dituztenak, eta horrek familiaren elkarbizitza autonomoa arriskutan jartzen badu.

Erabiltzaileen eskubideak:

-65 urtetik goitiko pertsonak, baliaezintasun arazo larriak dituztenak.

-Ezgaituak.

-Eritasun larriak edo/eta terminalak dituztenak.

-Behar puntualak dituzten familiak edo helduak.

8. artikulua. Nork bere burua zaintzeko ezintasunik egon ezean, ez da zerbitzua zehaztu behar.

9. artikulua. Jarduera eremua erabiltzailearen etxebizitza bada ere, horrek, bere zentzu zabalean, "bitzitzeko ohiko ingurunea" hartzen du. Horrenbertzez, etxebizitzaz kanpoko jarduerak ere eginen dira (kudeaketa tikiak, karrikan laguntzea etab.).

10. artikulua. Beharra duten pertsonak edo/eta familiek eskatzen ahal dute Etxeko Laguntza Zerbitzua, betiere udalerrri honetan egiazki bizi eta erroldaturik badaude. Hala ere, bertzela jokatzeko eskatzen duten inguruabar bereziak egonez gero, ez da aurretik xedatutakoa aintzat hartuko.

11. artikulua. 2. artikuluko zerbitzuak hartzeko eskabidearekin batera, famili unitatearen aurreko urteko diru-sarrera guzti-guztien aitorten egiaztatua eta beharrezko juzkatzen diren agiriak oro aurkeztuko dira. Nola nahi den ere, eskabidea aurkeztu ondoko hilabetearen barnean PFEZ aitortenaren kopia ofizialaren edo/eta bertze ziurtagiriaren baten bidez aitortutako sarrerak egiaztatu beharko dira eta eskatzen ahal diren agiri osagarriak aurkeztu.

12. artikulua. Gobernu Batzordeak espedienteak ebatzi eta zerbitzua onartu ala ezezten den jakinaraziko du. Aitzinetik, zerbitzuaren gizarte langile arduradunak eskabide bakoitza baloratu eta behar den proposamena osatuko du, eta behar izanez gero, erabiltzaileak ordaindu beharreko tasa zehaztuko.

13. artikulua. Erabiltzaile bat baino gehiago etxe berean bizi badira, tasa behin bakarrik aplikatuko da, erabiltzaile bakarra edo famili unitate bakarra balira bezala.

14. artikulua. Aski ongi justifikatu eta baloraturiko inguruabar jakin eta bereziak direla bide, ikusten bada erabiltzaile batendako baremoa aplikatuzetik etortzen den tasa ordaintzea gehiegizko zama dela, zerbitzuko gizarte langileak proposatzen ahal du erabiltzailea diru-sarrera apalagokoen mailan sartzea edo tasa ordaintzetik salbustea.

Hori gertatuz gero, aplikatutako tasaren eta dagokionaren arteko aldea Gizarte Zerbitzuen diru-laguntza aurrerapentzat hartuko da, eta onuradunak edo kausadunak diru hori itzuli beharko du egoera ekonomikoa aldatu, ondasunak likidatu edo eskualdatzen badira eta are hiltzen bada ere.

Horretarako, zorraren aitortpena sinatuko da, baita baldintza ekonomikoak, ondarekoak barne, aldatu ala berberak diren azaltzen duen deklarazioa ere.

15. artikulua. Aparteko kasuetan, hots, 2. artikuluan ikusitako zerbitzuak Udalaren erabakiz ematen hasten direnean, hartzailea ez da erabiltzailetzat hartuko tasa kobratzeko ondorioetarako eta horrenbertzez, laguntza horiek bitartekoak eta aldi baterakoak izanen dira, harik eta pertsona edo familia hartzaileak beharrezko eskabidea aurkeztu arte.

16. artikulua. Honako hauek ekarriko dute Etxeko Laguntza Zerbitzutik gelditzea:

- a) Etxeko laguntza hartzea ekarri zuten egoera pertsonal edo/eta familiarrak gainditzea.
- b) Erabiltzailea bertze udalerrri edo zentro espezializatu batera eramatea.
- c) Erabiltzailearen heriotza.
- d) Nahitara eskatzea.

17. artikulua. Prezio publikoak hileroko ordainduko dira, zerbitzuaren sorrarazpena izan eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko bost eguneko epearen barnean eta horretarako ezartzen den moduan.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

18. artikulua. Arau-haustetzat hartuko da, tarifa tikiagoa izateko asmoz aurkezten diren agiri edo aitortpenak faltsutzea, baita Udalari ez jakinaraztea ere tarifen kalkulua egiteko kontuan hartu behar diren diru-sarrerak handitu direla.

19. artikulua. Egiten diren arau-hausteak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoaren arabera zehatuko dira, eta erabiltzailea zerbitzutik kentzeraino iristen ahalko da.

Xedapen iragankor bakarra.-Etxeko Laguntza Zerbitzuaren egungo erabiltzaileek ordenantza honen 11. artikulua aipatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte horretarako emanen den epean, ordaindu behar duten tasa kalkulatu ahal izateko.

Azken xedapenetan lehena.-Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatuari jarraituko zaio.

Azken xedapenetan bigarrena.-Ordenantza fiskal honek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako tramiteak bete ondoan hartuko du indarra.

ERANSKINA

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ERABILTZAILEEI APLIKATU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN BAREMOA

Diru iturriak:

Prezio publikoa kalkulatzeko, subjektu pasiboaren famili unitateari dagozkion diru-sarrerak eta ondarea baloratuko dira. Honako hauek, hain zuzen ere:

-Laneko errentak.

-Pentsioak.

-Aldizkako prestazioetatik etorritako errentak: langabezia saria eta laguntza, bertze batzuk.

-Higigarrien eta higiezinaren errentak.

Prozedura:

Prezio publikoa aplikatuko da hilabeteko per capita errentaren gainean, eta hau zein den jakiteko kalkulu hauek egiten dira:

-Eskabidea egin aurreko urtean familia unitateak kontzeptu guztietan izan zituen diru-sarrerak zati 12 hilabeteko.

-Emaizta hori zati familia unitateko kideen kopurua.

Aintzat hartu beharreko baldintzak:

- 1.-Prezio publikoa aplikatzeko lanbidearteko gutieneko soldata hartuko da oinarritzat.
- 2.-Prezio publikoa familia unitate bakoitzeko aplikatuko da.
- 3.-Prezio publikoaren zenbatekoa ez da inoiz laguntzaren kostu erreala baino handiagoa izanen.
- 4.-Hilabetean per capita errenta LGSaren %120 baino handiagoa bada, tasaren zenbatekoari laguntza orduen kostuari dagokion portzentajea batuko zaio, baremoan ageri dena.
- 5.-Orduko kostua kalkulatzeko, hau egingen da: famili langileei dagozkien urteko lansariak batu eta emaitza hori zati urteko lanordu kopurua, Udalaren hitzarmenaren arabera.

2011KO TARIFEN ERANSKINA

Hileko per capita errenta: LGSaren %60tik beheitiko diru-sarrerak. Prezio publikoa (euro/hil.)	4,40
Hileko per capita errenta: LGSaren %60tik %75era bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.)	8,65
Hileko per capita errenta: LGSaren %75etik %90era bitartekoak Prezio publikoa (euro/hil.)	13,00
Hileko per capita errenta: LGSaren %90etik %105era bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.)	17,35
Hileko per capita errenta: LGSaren %105etik %120ra bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.)	21,80
Hileko per capita errenta: LGSaren %120tik %135era bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.) + laguntzako orduaren kostuaren %5	21,80
Hileko per capita errenta: LGSaren %135etik %150era bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.) + laguntzako orduaren kostuaren %10	21,80
Hileko per capita errenta: LGSaren %150etik %165era bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.) + laguntzako orduaren kostuaren %15	21,80
Hileko per capita errenta: LGSaren %165etik %180ra bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.) + laguntzako orduaren kostuaren %20	21,80
Hileko per capita errenta: LGSaren %180tik %195era bitartekoak. Prezio publikoa (euro/hil.) + laguntzako orduaren kostuaren %25	21,80
Hileko per capita errenta: LGSaren %195etik goiti. Prezio publikoa (euro/hila) + laguntza orduko kostuaren %30	21,80